

"Lesioaren ostean, entrenamendu bakoitza baloratzen ikasi dut"



Athleticeko lehenengo taldeagaz debutatu eta berehala, Irene Oguizak belauneko lesio larria izan zuen iazko otsailan. Benetako nortasuna une zailetan ikusten da, eta hamar hilabete iraun duen errehabilitaziotik fisikoki eta mentalki indartsuago irten duela dio. Erdilari durangarra berriro ere lehenengo taldean jokatzen dabil, eta orain asteburu bi gol bi sartu zituen Espanyolen kontrako partiduan. • 18



Durangalde osoak eremu gorritik irten du aste honetan

Koronabirusa • Oraindino intzidentzia tasa altuak izan arren, badirudi hirugarren olatua deritzona atzerantz egiten hasi dela. Horrela, Durangaldeak eremu gorritik irten du aste honetan. Abadiño eta Durango eremu laranja daude, eta Elorrio eta Zornotza horian. Beraz, egoera epidemiolo-

gikoa hobera egiten ari da. Horrez gainera, astelehenean Jaurilaritzaren neurri berriak indarrean sartu ziren. Astelehenetik aurrera, mugakideak diren herrietara joatea baimendu du Jaurilaritzak, betiere jardura sozioekonomikoetarako edo aire zabalean kirola egiteko bada. • 10




Herri galdeketari buruzko dudak argitu dituzte lehenengo foroetan

Durango • PERI 1 Trenbidea proiektuaren aurrekariak, gaur egungo egoera eta galdeketaren emaitzetatik eratorri daitezkeen eszenatoki posibleak azaltzeari

ekin diote Durangon, lau batzar informatiboren bitartez. Eurretari bi asteon izan dira eta hurrengo biak datorren asteko martitzenean egingo dituzte. • 4

Ingurumen gehigarria



ALKIMAX

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C • Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 • Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Irtenbideak materiala igotzeko

Eskuzko jasogailua



GENIE GL10



GENIE SLA-20

Pilagailu elektrikoak



HYSTER S 1.2



PRAMAC LX1450

“Mugimendu feministari 'eta gu zer' galdezka egon beharrean, gizonoi aspaldi heldu zitzaigun geure bidea egiten hasteko unea”

"Berdintasunaren aurrean, gizonozkook zer?". Bada, galdera horri erantzuteko jardunaldiak antolatu dituzte Abadiñon. Dozena bat gizonozkok eman dute izena

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Ados. Galdera potoloa da, erantzun asko eduki ditzakeena. Baina ekitea da kontua. Eta dozena bat gizonozko horretan dabilta Abadiñon: euren botere hartu-emanak zelan desboteretu daitezkeen hausnartzen, horregaz berdintasunari bidea errazteko. Jardunaldiak Abadiñoko Berdintasun Sailak antolatu ditu eta Hiruki Larroxa kolektiboko kideak dabilta dinamizazio lanak egiten. Joan zen barikuan egin zuten ikastaroaren lehenengo zatia. Bariku honetan egingo dute bigarrena. Egoitz A. Albeniz (Hernani, 1988) da saioen dinamizatzailea.

Galdera potoloa da, baina horretarako daude meloia. Zabalduta eta jateko. Zelan lagundu diezaioke gizonozkoek feminismoari, kontuan hartuta matxismoak sortutako produktu sozial nagusiak gizonozko horien boterekeriatik eratortzen direla?

Ez dakit gizonok lagundu diezaiokegun feminismoari aurrera egiten. Agian, gure ekitea hori izan daiteke, ez-akzioa akzio moduan ulertzea. Hau da, emakumeek historikoki ez dute espazio publiko-politikoak egituratu eta antolatzeak aukerarik izan. Ez zaie aitortu subjektibotasun politikorik, hain zuzen, eredu zisheteropatriarkala

ia betidanik egon delako indarrean. Beraz, uste dut beharrezkoa dela emakumeek euren bidea egitea, gaur gaurkoz gizonon injerentziarik barik. Hala ere, uneren batean espazio mistoak sortzen hasiko direla esango nuke, baina hori ez da ailegatuko bitarte horretan gizonok gure aldetik lanketa propioa egiten ez badugu. Uste dut mugimendu feministari "eta gu zer" galdezka egon beharrean, gizonoi aspaldi heldu zitzaigula geure bidea egiten hasteko unea.

Adibide praktikoren bat ipiniko zenuke? Zeintzuk dira gizonozkoen boterekeria islatzen duten praktikak?

Alde batetik, gizonon artean dagoen anaitasun maskulino hori dago. Sortzen diren iruzkin sexisten, matxisten, arrazisten eta homofoboaren aurrean isilik geratzea. Gero, badira emozioak ukatzeko joerak, gizon eta emakumeen artean elkar agurtzeko egiten ditugun erritu sexistak eta espazio publikoen jabetzak. Gure eguneroko bizitzako lanen banaketari buruz ere berba asko egin daiteke. Zaintzari loturiko gaiei buruz, baina ez horri buruz bakarrik. Beste adibide bat homofobiak gizontasunean betetzen duen paper eraikitzailea izan daiteke.

Abadiñoko jardunaldi hauetara etorrita, zeintzuk dira egun bi hauetan lantzen zabilzaten gakoak?



Egoitz A. Albeniz
Hiruki Larroxa
Hernani | 1988

Batetik, generoa eraikuntza kulturala den neurrian, berau deseraiki, zalantzan ipini eta eraldatu daitekeela ulertuko dugu. Bestetik, gi-

“

Agian gure ekitea hori izan daiteke, ez-akzioa akzio moduan ulertzea”

—

zonen moduan jendarte justu eta aske baten alde egin daitekeena inguruan hausnartuko dugu. Azkenik, bizi dugun jendarteko ordena sinbolikoan gure identitateak betetzen duten posizioaren kontzientzia hartzetik, ardura hartzeko pausoa eskaini gura du. **Eta pauso hori eman gura duen gizonozkoari zer esan? Nondik hasi teoriatik praktikara jotzen?** Hasteko, ohiko edozein egunetan, edozein lekutan, bere ingurura begiratzeko esango nioke, eta ikusten duen eszena hori eraldatzeko. Behin egoera

alderantziz ikusita, bere buruan sortu duen egoera horrek zentzurik ez badu, edo barregura edo harridura eragiten badio, hor desberdinkeria eta indarkeria dago. Eta eraldatu beharra dago. Hortik aurrera, ikusten ikasi beharko genuke. Baita albokoei entzuten ere. Eta gure barruan kokatzen diren erabakiak hartzen hasi. Noski, horretarako, tailer zein formakuntzak ongi datoz, baina horrekin ez da nahikoa. Hautu pertsonal bat ere egon behar da, problematika honen gaineko ardura hartzearena.

"Ikusi nuen feminismoa iraultzeko heldu zela eta horrek beste kokapen bat hartzea eskatzen digula gizonozkooi"

Arkaitz Otxoantesanak eta Julen Azkoagak berdintasuna lantzeko ikastaroetan eman dute izena. Joan zen barikuan egin zuten saioaren lehenengo zatia. Gaur daukate bigarrena

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Zerk bultzatuta eman duzue izena berdintasuna lantzeko ikastaroan?

Arkaitz Otxoantesana: Orain urte batzuk antzera bateko tailerretan parte hartu nuen. Ikusten nuen mugimendu feminista iraultzeko ailegatu zela eta horrek beste kokapen bat hartzea eskatzen digula gizonozkooi, feminismoari lagundu ahal izateko. Ikastaroak gogoeta egiteko eta norbere buruari buruzko

gauza asko zalantzan ipintzeko balio du.

Julen Azkoaga: Garai hauetan ez da aukera askorik egoten halako ikastaroak egiteko, eta uste dut gune hauek aprobeztatu egin behar direla. Beti gaude halako espazioak norberak noiz sortuko zain. Honelako espazioetara natorren aldiro, bueltatzeko gogoz irteten dut.

Gaur jardunaldiaren bigarren zatia landuko duzue. Zer moduz joan da lehenengo zatia?

A.O.: Gustura egon naiz eta gustura irten dut hemendik. Gogotsu nago berrirori etortzeko. **J.A.:** Ni ere oso gustura egon naiz. Egoitz dinamizatzailearen laguntzagaz gune eroso eta seguru bat sortu dugula uste dut. Gauza berezia da kalean egiten ez duguna honelako espazioetan lantzea. Honek erakusten du hemendik kanpora ere gaia landu daitekeela eta gure artean berba egin dezakegula.



Arkaitz Otxoantesana eta Julen Azkoaga.

Uda honetan hasiko dira Traña-Matienako Haur Hezkuntzako eraikina eraberritzen

Txarto dagoen habe bat eta hamalau zutabe berrituko dituzte. Jaurlaritzak lanen %60 finantzatzea gura du udalak. Bestalde, Haur Hezkuntzako eraikina Traña plazara lekualdatzeko proiektua bertan behera utzi duela adierazi du udalak

ABADIÑO • J.G. / E.H.

Oraindino itxaron egin beharko da emaila ailegatu arte, baina Abadiño Udalak aurreratu duenez, uda honetan hasiko dituzte Traña-Matienako eskola eraberritzen. Hobekuntzok Haur Hezkuntzako eraikinean egingo dituzte, hain zuzen ere. "Gaur egun txarto dagoen habe bat eta hamalau zutabe" konponduko dituzte, Abadiño Udalak azaldu duenez.

Kontua ulertzeko urtebete egin behar da atzera. Alarma egoeraren sasoian, Abadiño Udalak txosten bat enkargatu zuen Traña-Matienako Haur Hezkuntzako eraikina aztertzeko. Txosten hark "arrakalak eta beste hondamen zantzu batzuk" identifikatu zituen ikastetxean. "Hezetasunak" eraikinari "narriadura" eragiten ziola ondorioztatu zuen, eta, horregaitik, eraikina eraberritzeko lanak bi urteren barruan egitea gomendatu zuen.

Orain, Abadiño Udalak finkatu duen lan egutegiaren arabera,

obra-proiektuaren idazketa martxoan amaituko dute, proiektua Aste Santuaren aurretik lizitatuko da eta lanak udan hasiko dira. Proiektua Eusko Jaurlaritzari helaraziko diote, kostuaren %60raino fi-

nantzatu dezan. Eraberritze lanak aprobetxatuz, eskoletako berokuntza sistema hobetuko dute.

Orain urte bi, Haur Hezkuntzako eraikina Traña plazara aldatzeko proiektua izan zuen Abadiño U-

dalak mahai gainean. Horrela, hustutako orubean etxebizitza-erakin bi eta lurpeko aparkaleku bat egitea gura zuten. Baina, udalak argitu duenez, proiektu hori alde batera utzi dute.



Traña-Matienako Haur Hezkuntzako eraikina, 2020ko uztailan.

Diru laguntzak prest kirola Durangaldeko instalazioetan egiten duten garaitarrentzat

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak diru laguntzak emango dizkie ariketa fisikoa egitera Durangaldeko kiroldegietara jo behar izaten duten herritarrei. Modu horretan, udalak "bizi ohitura osasungarriak" bultzatu gura ditu. Diru laguntzaren zenbatekoa gastuaren % 30 izango dela aurreratu du, eta, gaineratu du, diru laguntzaren kopurua 100 eurokoa izango dela gehienez eskatzaile bakoitzeko.

Eskaria egin gura duenak udaletxera jo beharko du, martxoaren 15a baino lehen. Interesdunek Garaiko udalerrian erroldatuta egon beharko dute urtebete lehenago gutxieenez, eta ikastaroa amaitu arte erroldatuta jarraitu beharko dute. Durangaldeko udalerrietako edozein Kirolleko Udal Institututan (KUI) edo kirolgunetan matrikulatuta egon beharko dute eta egunean izan beharko dituzte Garaiko Udalari ordaindu beharreko zergak.



Ez dago eguraldi txarrik GLA eta GLB 4MATIC berriei esker.

Bihurgune guztiak surfean egitea, elurretan ezkutututako ibilbideak zeharkatzea eta aurpegian haize freskoa sentitzea. Errepideaz gozatzen gara, gainerakoak etxean geratzen diren bitartean. Hori dela eta, abiarazi berriro, lehenengo trumoiak entzutean **4MATIC erabateko trakzioari** esker, zure abenturez gozatzeko klima edozein dela ere, gidatze-sistema moldagarri eta inteligenteari esker.

Mercedes-Benz



Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala
Retuerto Kalea, 38.
48903 BARAKALDO.
Tel.: 94 497 00 74.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Boroa enpresa-parkea, 2A-3 partz.
48340 ZORNOTZA.
Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra, z/g.
48014 BILBAO (DEUSTU).
Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.
48940 LEIOA.
Tel.: 94 463 11 75.



San Agustinen egindako batzar informatiboa, martitzenean.

Herri galdeketari buruzko zalantzak argitzeari ekin diote Durangon

Batzar informatibo bi egin dituzte asteon. Durangoko Udalaren eta ETSren arteko hartu-emanek proiektuaren etorkizuna zelan baldintzatu dezaketen jakitea da herritarren zalantzatariko bat

DURANGO • E.H. / J.D.

Denerik entzuten da: "Koronabirusak parte hartzea baldintzatu du, baina durangarrak botoa ematera joatea espero dut, oso inportantea delako parte hartzea. Gero ez du balio esateak ez duzula emaitza gogoko. Bakoitzak eman dezala botoa bere nahien arabera". Halantzik zioen durangar batek, martitzeneko batzarra hasteko minutu batzuk falta zirela. Beste herritar batek honako hau zioen: "Ideia bategaz nator, baina proiektu hau zaharra da. Orain urte askotik dator eta aldaketa asko egon da bidean. Horren atzean zehatz-mehatz zer dagoen ez dakigunez, informazioa jasotzera

"Durangarrak botoa ematera joatea espero dut, oso inportantea delako parte hartzea"

nator". Izan iritzi bat ala bestea, durangarrak herri galdeketagaz interesatuta daude, eta, horregaitik, udalak antolatutako batzar informatiboetara jo du hainbatek, galdeketari buruzko informazioa batu eta zalantzak argitzeko.

Durangoko Udalak lau batzar informatibo antolatu ditu martxoaren 14ko herri galdeketari buruzko zalantzak argitzeko. Lehenengo biak asteon egin ditu, eta datorren martitzenean egingo ditu beste biak, hilak 23, 16:30ean euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz, San Agustin Kulturgunean. Hiritik At enpresa arduratzen da batzarrok dinamizatzeaz. Arkitektura proiektuak eta tokiko garapenari lotutako proiektuak lantzen dituen enpresa da. Gutxi gorabehera, ordubete inguruko iraupena dute batzarrek. Lehenengo berrogei minutuetan, PERI 1 Trenbidea proiektuaren aurrekariak, egungo egoera eta galdeketaren ondoren etorri daitezkeen eszenatoki posibleak

azaltzen dituzte. Behin hori egin da, herritarrek euren zalantzak mahaigaineratzeko momentua ailegatzeko da.

Martitzeneko zalantzak

Honako hauek izan ziren martitzeneko saioan mahaigaineratutako zalantza nagusiak: batetik, onartuta dagoen urbanizazio proiektuaren barruan aldaketarik egin ote daitekeen jakitea. Eta, bestetik, galdeketa herritarrek erabaki bat ala bestea hartzeak ekarri ditzakeen eragin ekonomikoak jakitea.

Jasotako zalantzen erantzunak www.durango.galdeketa.eus atarian ipiniko dituztela aurreratu zuten Hiritik At taldeko kideek.

Erabaki bat edo bestea hartzeak zein eragin ekonomiko izan dezakeen galdetu du hainbatek

Landaederratik gorako pista ez hormigoitzeko eskatu dio Durangoko Udalak Aldundiari

800 metroan zementua botatzea jasota dago plan batean

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Udalak gutuna helarazi dio Bizkaiko Foru Aldundiari, Landaederratik gora doan pista ez hormigoitzeko eskatzeko. Izan ere, plan batean jasota

dagoenez, Landaederra baino goratxoagotik hasi eta Mugarra-rako mendi bidea hasten den bihurguneraino dauden 800 bat metroetan zementua botatzeko asmoa zuen Aldundiak.



Landaederrako inguruak.

Durangoko Udalak deitoratu egin ditu ondare historikoan egindako pintaketak

Asteburuan hainbat pintaketa agertu zen Durangon



Pintaketak San Agustin kulturgunean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Asteburuan hainbat pintaketa agertu zen Durangoko kaleetan; besteak beste, San Agustin kulturguneko fatxadan eta Santa Anako arkuan. Idatzitako mezuen bitartez, koronabirusari

aurre egiteko neurri murriztai-leak kritikatzeko ziren.

Durangoko Udalak "tristura eta haserre" agertu ditu prentsa ohar bidez, eta ondare historikoan egindako pintadak deitoratu ditu.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko otsailaren 19a
19. urtea - 839. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Oier Andueza Basauriko espetxetik irten ondoren.

Oier Andueza euskal preso durangarra aske geratu da

Hogei urteko espetxealdia bete du Espainiar estatuko hainbat kartzelatan. 2020ko, azaroan Murtziako kartzelatik Basauriko espetxera lekualdatu zuten

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Hogei urteko espetxealdia bete eta gero, Oier Andueza euskal preso durangarra aske geratu da. Espainiako polizia 2001eko otsailean atxilotu zuen Andueza, eta ordutik hainbat kartzelatan egon da preso; besteak beste,

Teixeiroko, Caceresko, eta Soto del Realgo espetxeetan. Azken urteak Murtziako (Espainia) kartzelan egin ditu. Handik Basaurira lekualdatu zuten, 2020ko azaroan, eta bertan bete ditu zigorraren azken hileak. Astelehenean geratu zen aske.

Durangoko Jardunaldi Feministetan landutakoak liburu batean bildu dituzte

'Salda Badago' liburua aurkeztu dute asteon, Durangon



'Salda Badago' liburua San Agustin kulturgunean aurkeztu zuten.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Salda egon, egon zen. Eta oraindino ere geratzen da zer edo zer lapi-koan. Euskal Herriko mugimendu feministaren kide diren hainbat lagunek 'Salda Badago' liburua aurkeztu dute asteon, Durangoko San Agustin kulturgunean. Liburuak 2019ko azaroaren lehenengo hiru egunetan Landako Gunean egindako Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan bizitakoak jasotzen ditu. Emagin ikerketa eta hezkuntza feministarako elkarte arduratu da edukiak garatzeko prozesuaz, eta liburuaren nondik norako batzuk azaldu ditu bertako kide Monica Mendiberrik. "Liburuaren funtsa bada memoria ariketa bat egitea, baina interpretazio kritiko bat egitea ere bada asmoa", adierazi du.

Alde batetik, Jardunaldietan landutako materialak, proposamenak eta herrikako diagnosiak jaso dituzte. Bestetik, baita han parte hartu zutenen bizipen, emozio eta tentsioak ere. Mugimendu feministak etorkizuneko lerroak marraztu zituen Durangon.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan



"Eredu dualak lan munduaren ikuspegi erreala ikusarazten dizu"

GORKA AGIRRE (Zornotza, 20 urte) Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (myGADE) gradu dualeko 2. mailan dago, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean. Gainera, Tazebaez kooperatiban lanean dabil.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Zornotzako Urrixe institutuan batxilergo zientifikoa ikasten hasi nintzen. Hala ere, hautazko ikasgaietarikoa bat ekonomia nuen. Nire zaletasunen artean futbola, lagunekin irtetea eta musika entzutea ditut.

Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua?

Batxilergoko 2. mailan nengoela, argi nuen ekonomiagaz lotutako zerbait ikasiko nuela. Nire lagunak onenaren ahotik entzun nuen Mondragon Unibertsitatean ADE gradua enpresa ibilbideagaz batera trebatzeko aukera zegoela.

Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Zergatik Bilbao AS Fabrikean?

Unibertsitateak dituen ikasketa eta ebaluaketa metodologiak, irakasleen hurbiltasunak eta dualak dakarren aukera paregabeak bultzatu ninduten myGADE ikastera. Hurbiltasunagatik aukeratu nuen Bilbon, eta han fakultatea irekitzea asmo handiko proiektua zelako.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso aberasgarria izan da. Irakasleengandik hainbat kontzeptu barneratzen dituzu; gainera, haien hurbiltasunak asko laguntzen du. Lankideetatik ere asko ikasten da, pertsona lez ere bai.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Ikasketa aktiboa izango litzateke hitza. Irakasleek laguntza ematen dizute hasiera batean, baina gero zeuk eman behar duzu aurrerapausoa. Azterketetatik kanpo taldeka lan egiten dugu eta problematikak gertatzen dira. Beraz, taldeari ematen zaio kasuistika aztertu eta konponbidea lortzeko askatasuna.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduari.

Tazebaez izeneko kooperatiba batean nabil lanean. Bertan, finantza eta administrazio arloetan lan egiten dut batez ere.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Izugarritzak; batez ere lan munduan. Hasieran ez baitaukazu inolako eskarmenturik, ezta gaitasunik zure lanak burutzeko. Eredu dualak lan munduaren ikuspegi erreala ikusarazten dizu. Enpresako tutoreak zein tutore akademikoak asko laguntzen didate.

Atzerriko esperientziak bizi izan dituzue. Eta aurtan?

Aurtan, agian atzerriko esperientzia txiki bat egingo dugu. Beste herrialde batzuetako unibertsitate batzuekin proiektu bat egitea da ideia. Baina oraindik ez dago ezer argi. Iaz, Pragara joan nintzen. Hiria eta hainbat enpresa bisitatu genituen.

Etorkizunari buruz, zein da zure asmoa?

Argi dudan gauza bakarra da ikasten jarraituko dudala, masterren bat agian.



Ixer kaleko obrak amaitzen direnean kaleak izango duen itxura, infografian.

Ixer kaleko obrak otsailean amaitzea aurreikusi dute

1.300.000 euro baino gehiagoko aurrekontua bideratu du; Lanen helburua, oinezkoen lehentasuna ematea da

ZORNOTZA • A.M.

Ixer kaleko urbanizazioa otsailean amaitzea aurreikusi du Zornotzako Udalak. Oinezkoen lehentasuna ematea, espaloiak zabaltzea, oztopo arkitektonikoak kentzea, berdeguneak sortzea eta hiri-elementuak hobetzea da lanen helburua. 1.300.000 euro baino gehio-

goko aurrekontua erabili du udalak. Horrez gainera, 30 bat aparkaleku berri sortuko dituzte; San Pedro eta Ixer kaleen arteko zatian norazkoa aldatuko dute, gainera. "Inguruko ibilgailuen zirkulazioa hobetzen lagunduko du. Gidariei ikuspen handiagoa eman- go die", dio udalak.

Herritarren kexekin batera, Otxandioko Udalak idatzi bat bidaliko dio Kutxabanki kutxa zerbitzua egunero eskaini dezan eskatzeko

Bulegoa abuztuan ez ixtea eta kutxazainen mantenua "era egokian" egitea dira Kutxabanki egiteko beste eskaera bi

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Herri txikietan geroago eta ohikoagoa bihurtzen dabilen joera da honako hau: bankuek geroago eta zerbitzu murriztagoa eskaintzen dute eta horrek mugatu egiten du herritarrek banku-kudeaketak egiteko duten aukera. Otxandio da horren adibide bat. Horregaitik, udalak erreklamazio idatzi bat bidaliko dio Kutxabanki herriko egoera zein den azaldu eta hainbat eskaera egiteko.

Udalak ohar batean onartu duenez, Kutxabankekin Otxandion ematen duen zerbitzuaren inguruko kexak helarazi dizkiete herritar askok. Horregaitik, egonezin hori jaso eta bankuari kezka zuzenean helarazteko konpromisoa hartu dute. Herritarrei eskatu diete otsaila amaitu bitartean euren kexak Kontseilupeko buzoian zein udaletxean uzteko. Orain arte 275 kexa jaso dituzte eta Kutxabanki bidaliko dioten erreklamazio idatziaren parte izango dira.

Sasoi batean, Kutxabankekin astegun guztietan ematen zuen kutxa zerbitzua, baina egun bira murriztu du, eta ordutegi jakin batean. "Horrek jende pilaketak sortzen ditu, pandemia sasoi honetan gomengarriak ez direnak", jasotzen du idatziak.

Euren kexak udaletxean edo Kontseilupeko buzoian uzteko eskatu diete herritarrei

Gainera, bulegoko kutxazaina "ez dabil behar den moduan", idatziaren arabera. "Asteburu askotan ez dabil, eta ezinezkoa izaten da dirua ateratzea".

Arazoak adinekoentzat

Erabaki horien ondorioz, "adineko jende askok arazoak ditu bere gestioak egiteko, ezin dutelako kutxazain, telefono edo bestelako baliabide telematikoen bitartez egin". Era berean, kutxa zer-



Otxandioko kutxa zerbitzua asteko egun bitan egoten da zabalik orain.

bitzuaren ordutegi murriztuak "ez ditu inola ere herriko negozio txikien beharrianak asetzen". Baina arazoa ez da sektore batzuetara bakarrik mugatzen, eta "herritar guztiei konplikatu die eguneroko gestioak egin ahal izatea", idatziak zehazten duenez. Laburbilduta, bezeroen

eta bankuen arteko hartu-emana modu iraunkorrean indartzea "oso garrantzitsua" iruditzen zaie eta erlazio hau "ezin da inolaz ere teknologiaz ordezkatu".

Eskaerak

Egoera horren aurrean, Kutxabank bankuari zuzendutako

idatziak hiru eskaera jasotzen ditu. Lehenengo, kutxa zerbitzua berriro ere egunero eskaintzea. Bigarren, abuztuan bulegoa ez ixtea. Azkenik, Otxandioko banketxeko kutxazainaren mantenua "era egokian egitea". Udalaren eta Kutxabanken arteko batzar bat ere eskatu dute.

Mañariko zubi berriak arrapala bat izango du Herriko Plazaren aldean

Zubi berria aurrekoa baino garaiago egongo denez, zazpi mailako eskailera eta 14 metro luze izango den arrapala bat ere egingo dituzte, irisgarritasuna bermatzeko

MAÑARIA • J.D.

Andra Mari kalea eta Herriko Plaza lotuko dituen zubi berria orain dagoena baino 25 zentimetro garaiago egongo da. Araudi berrietara egokitzeke hartu beharreko neurria da. Gune horretako hidraulikaren egoera hobetzea da helburua, eta uholde arriskuak gutxitzea. Ondorioz, zubiaren eta Herriko

Plazaren artean dagoen kota handitu egingo da; 1,15 metrora hain zuzen, proiektuak jasotzen duenez.

Horrela, zubia eta plaza modu bitara lotuko dituzte. Batetik, zubitik zuzenean plazara jaitsiko den zazpi mailako eskailera baten bitartez. Bestetik, arrapala bat egingo dute irisgarritasuna ahalbidetzeko. Arrapala hori zirkulu erdi

formakoa izango da eta 14 metroko luzera izango du, %8ko aldapa uniformeagaz. Plazatik zubira begiratuta, ezker aldean joango da.

Andra Mari kalerako aldean, oster, ez da eskailerarik beharko. Parean geratuko dira zubiaren eta kalearen arteko kota. 1,5 metroko pasabide zuzen batez lotuko dituzte zubia eta kalea.



Mañariko zubi zaharra itxita dago.

Mallabiko denda berria hartuko duenari kudeaketa esleitu diote

MALLABIA • J.D.

Iazko azaroan, Mallabiko Udalak lehiaketa bat ipini zuen martxan, ekipamendurako eraikina deiturikoan dagoen lokal bat alokatzeko. Herrian zerbitzu enpresa bat zabaltzeko interesa zutenei horretarako azpiegitura bat eskura ipintzea zen helburua. Proposamen bat aurkeztu zuten lehiaketara, Ermuko pertsona batek, hain zuzen ere. Proposamen horrek beharrezko tramite guztiak gaintitu zituen eta hari esleitu diote lokalaren kudeaketa hurrengo urteetarako. Dena prestatu eta ateak zabaltzen dituenen, elikagaiak (barazkiak, ogia...) eta bestelako produktu batzuk salduko ditu.



Izurtzako hiru semaforo berriak ipinita eta martxan hasteko prest daude

IZURTZA • J.D.

Izurtzako trafikoaren abiadura sinkronizatutako semafoeren bitartez kontrolatzeko eguna geroago eta gertuago dago. Zazpi semaforo ipiniko dituzte guztira, eta hiru semaforo berriak ipinita daude dagoeneko: Tabirako biribilgunearen ostean dago bat, eta Antonio Txiki okindegiaren pareko bihurtunearen aurretik eta ostean daude beste biak. Hiru hauek aurretik zeuden laurak gehituko zaizkie, 'olatu berdea' izeneko sistemaren bitartez trafikoaren abiadura kontrolatzeko. Horregaz batera, ez da asko falta Izurtzako herriguneko alde batean egitekoa zen espaloia zatia ere amaitzeko.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

Elorrioko ostalariek aurten ez dute tasarik ordainduko terrazengaitik

Horrez gainera, udalak azaldu du beste neurri batzuk ere hartuko dituela ostalaritzarako



Ostalariek ez dute tasarik ordaindu beharko terrazengaitik.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen eguenean egindako osoko bilkuran, Elorrioko udalbatzak terrazen kobrantza etetea erabaki zuen, aho batez. Neurri horregaz, ostalaritzaren sektoreak bizi duen "egoera sozioekonomiko txarra" arintzen lagundu gura du Elorrioko Udalak. "Pandemia sasoi honetan, gure mikroenpresak eta autonomoak izan dira sektorerik kaltetuenetarikoak, eta horien barruan ostalaritzak etenik bako zigorra jasan duela esan daiteke. Okerren dauden kolektiboak laguntzea da udal honen helburua, kasu honetan ostalariei", adierazi zuen Maria Herrero alkateordeak.

Bestalde, Idoia Buruaga alkateak nabarmendu zuen hartutako erabakia oposizioagaz adostutako neurrietariko bat zela. "Hau Elorrio Biziberritzen planeko beste neurri bat da, hiru indar politikook ados-

Alkateak azaldu duenez, erabaki hau Elorrio Biziberritzen planeko beste neurrietariko bat da

tutakoa. Eta uste dut garrantzitsua dela horren balioa azpimarratzea", esan zuen Buruagak. Bere aldetik, Mikel Arruabarrena EAjren boze-

ramaileak nabarmendu zuen edozein laguntza txiki garrantzitsua izango dela ostalarientzat.

Terrazen tasak ez kobratzeaz gainera, bestelako neurri batzuk hartzea ere aztertzen dabil Elorrioko Udalak. Bestalde, orain arte hartutako beste neurri batzuk gogora ekarri dituzte udaleko kideek prentsa ohar baten bitartez. Besteak beste, 30.000 euro ipini ditu erosketa bonuen kanpainetarako, 40.000 euro jarduera ixtera behartuta egon diren merkatarienezat, 100.000 euro autonomoentzat eta mikroenpresentzat, eta 46.500 ostalaritzari eta sukaldaritzari lotutako negozioentzat.

Elorrioko gaztetxean lapurretan egin dute asteon

Elorrioko gaztetxeko kideek euren sare sozialetan jakinarazi dutenez, gaztetxean lapurrak sartu dira beste behin ere

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko gaztetxeko kideek aste honetan sare sozialetan jakinarazi dutenez, lapurrak sartu dira gaztetxean. Lapurrak astelehene-tik martitzen goizera bitartean sartu ziren, gaez.

Gaztetxeko kideek azaldu dutenez, ez da lehenengo aldia lapurrak sartzen direna. "Urteurrenerako lanean genbiltzala, gaztetxera lapurretan etorri dira berriro. Hainbat kidek gaztetxea aurrera ateratzeko erakutsitako

"Gaztetxea aurrera ateratzeko erakutsitako konpromisoa eta gogo zapaltzen ahalegindu dira"

konpromisoa eta gogo zapaltzen ahalegindu dira", salatu dute gaztetxeko kideek. Bestalde, espazio autogestionatuen aurkako inongo erasorik ez dutela onartuko adierazi dute.

Elorrioko gaztetxeak 33 urte beteko ditu aurten.



Gaztetxeko atea apurtuta.

Apatamonasterioko kanposantua konpondu eta hobetu dute

Atxondoko Udalak jakinarazi duenez, hilerriko obraren kostu osoaren %90 Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu du; gainerakoa, %10, udalak berak ordaindu du

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apatamonasterioko kanposantua hobetu eta konpontzeko asmoz, lanean ibili dira bertan. Xabier Azkarate Atxondoko alkateak azaldu duenez, kanposantuko horma hondatuta egon da eta konpondu egin dute. Baina horma konpontzea ez da izan hilerrian egindako lan bakarra. Kanposantu inguruko bideak ere hobetu dituzte.

Obraren kostu osoaren %90 Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu duela azaldu du alkateak. Lan horiek egiteko, 246.290 euro eman dizkio udalari, diru laguntza formatuan. Lanen aurrekontuen gainerakoa, 57.365 euro, Atxondoko Udalak berak ordaindu du.



Kanposantuko horma eta bidea konpondu dituzte.

Berrizko EAJk ordezkari bi eta EH Bilduk bat Mankomunitatean

Orlan Isoird eta Begoña Madariaga izango dira EAJko ordezkariak; EH Bildukoa, Xabat Olariaga

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak azken osoko bilkuran zehaztu zituen Durangaldeko Mankomunitatean izango dituen ordezkariak. Orlan Isoird alkateak jakinarazi zuenez, EAJk ordezkari bi izango ditu eta EH Bilduk bat. EAJko ordezkari biak Orlan Isoird Berrizko alkatea eta Begoña Madariaga izango dira. EH Bilduko ordezkaria Xabat Olariaga izango da.

Berriz 22 urte egin ditu Mankomunitatekan kanpora, eta abenduan udalak Mankomunitatean sartzeko eskaria egin zuen. Berriz Mankomunitatean sartzeak polemika piztu du azken osoko bilkuretan. Gaia plenora heldu zenean, EH Bilduko eta Podemoseko zinegotziek EAJren eskariaren kontra bozkatu zuten, eta proze-

sua gelditzeko eskatu zuten. Hala ere, prozesuak aurrera egin zuen EAJren aldeko botoekin, eta azken osoko bilkuran ordezkariak izendatu zituzten. "Mankomunitatean sartzeko erabakia atzeratzea eskatu genuen, eta ez zen egin. Orain


22 urteren ostean, Berrizko Udalak Durangaldeko Mankomunitatean dago

ordezkaria aukeratu beharra dago eta ez dugu ordezkari hori galduko. Baina, gure ustez, ez ginen bozketa honetara heldu beharko", kritikatu zuen EH Bilduko Karmen Amezuak.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Zaldibarko Berbalagun kopuruak 5etik 17ra igo du ikasturte honetan

Berbalagun egitasmoa osasutsu dago Zaldibarren. Une honetan, mintzapraktika informala lantzen duten hiru talde daude. Hilean behin, bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte



Hiru Berbalagun talde daude Zaldibarren. Irudian, martxan dagoen taldeetarikoa bat.

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibarko Berbalagun egitasmoa sasoiko dago. Salto kuantitatibo esanguratsua eman du ikasturte honetan, eta hori erakusten dute Irati Martin Ceak, Zaldibarko Berbalagun egitasmoaren dinamizatzaileak, eskainitako datuek: "Momentu honetan, egitasmoa indartsu dago. Azken urteotan nahikoa baxu egon da kontua, parte hartze txikiagaz. Baina, aurten, Euskaraldiaren bultzadagaz eta egindako lanari eskerrak, 5 parte hartzaile izatetik 17 kide izatera pasatu gara", azaldu du Martinek.

Momentu honetan, hiru talde aktibo daude Zaldibarren. Talde bat martitzeneko elkartzen da, eguazteneko beste bat, eta, eguenero hirugarrena. Gainera, honi guzti honi hileroko antolatzen dituzten bestelako ekintza osagarriak

gehitu behar zaizkio. Urrutira joan barik, otsailaren 28an, domekan, 4 kilometroko ibilalditxoa egingo dute Eitzagako errota ezagutu birtartean euskaraz aritzeko. Deialdia herritar guztiei zabalik dago.

Sareak zabaltzen

Durangaldeko gainerako udalerrietan lez, Zaldibarko Berbalagunak Bidelari eta Bidelagun figurekin funtzionatzen du. Lehenengoak euskara praktikatu gura duten herritarrek dira; bigarrenak, oster, lehenengoei euskaraz egi-

"Euskaraz trebatu gura duenarentzat gauza handia da ordubeteko mintzapraktika izatea"

ten laguntzen dietenak. Martinek alde bien arteko elkarlanaren garrantzia nabarmendu du. "Egunerokotasunean euskaraz bizi denak pentsa dezake ordubeteko praktika batek gutxirako balio duela, baina euskaraz trebatu gura duenarentzat gauza handia da hori. Ikasten dabilen horiei sarea zabaltzen laguntzen die, eta hori da, hain zuzen ere, helburua. Euskararen erabilera zabaltzea", dio. Gainera, badirudi euskararen presentzia handitzen dabilela Zaldibarko kaleetan. "Uste dut ikusgarritasuna irabazi dela kalean. Eguen arratsalde batean, hainbat kidez osatutako guraso talde bat entzun dezakezu euskaraz parkean", azaldu du.

Berbalagunen ekintzetan parte hartu gura duenak zaldibarkoberbalaguna@gmail.com helbidera edo 688722989 telefonora jo dezake.

Martxoaren 4ra arte dago aukera Zaldibar auziko herri akusazioari diruz laguntzeko

ZALDIBAR • JOSEBA DERTEANO

Zaldibar Argitu plataforma eta askotariko erakundeak batzen dituen Eskubide Sozialen Karta herri akusazio lez arituko da Zaldibarko zabortegean gertatutakoa argitzeko epaiketan. Horrek "lan eskerga zein diru inbertsio handia" ekarriko dizkie, atzo Durangoko epaitegiaren aurrean eskainitako prentsaurrekoan azaldu zuten. Horregaitik, diru bilketa herrikoia ipini dute martxan, www.itsulapikoa.eus webgunean. Gogoratu zuten, martxoaren 4an amaituko da diru ekarpenak egiteko epea. "Prozesu honetan zehar, egia eta justizia argitzea izango da gure ahalegina. Alde horretatik, herritarrok bidelagun izatera gonbidatzen zaituztegu", azaldu zuten.

Zaldibar Argitu plataformaren eta Eskubide Sozialen Kartaren ustez, erantzukizunak "ezin dira eremu pribatura mugatu" eta harago joan beharra dago. "Eremu instituzionalak gertatzen zebilenaren gaineko erantzukizun politikoa du. Patronalak sustatzen duen eredu ez salatzeak administrazio publikoa bera konplize bihurtzen du", azaldu zuten.



Mercadona eraikitzen hasi dira lurretan

Eraikin tradizionalak baino efizienteagoa izango dela diote arduradunek, energia %40raino aurreztuz

IURRETA • JONE GUENETXEA

Hasi dira Mercadona supermerkatua eraikitzen Iurretan. Mercadona kateak Mallabiena industrialdean ezarri du bere proiektua. Inguru horretan, beste merkataritza-gune handi asko dago. Kate honek Durangaldean zabalduko duen lehenengo supermerkatua izango da. Supermerkatua udarako martxan izatea aurreikusi dute.

Denda ereduari dagokionez, energetikoki eredu efizienteagoa izango dela diote saltokiko arduradunek. Denda tradiziogaz alderatuta, energia %40raino aurreztu daitekeela aurreratu dute.

Produktu ugari

Janaria, edaria, etxea garbitzeko produktuak, higie-ne pertsonalerako produktuak eta animalientzako janaria salduko dute Iurretako saltokian. Gainera, nobedade lege, momentuan prestatutako janaria ere salduko dute. 35 plater inguru, hain zuzen ere.



Mallabiena industrialdea.

Beheranzko joera indartu da Durangaldean, eta jada ez dago herririk eremu gorrian; Abadiño eta Durango eremu laranjan daude

DURANGALDEA • A.M.

Aurreko asteetako kolore gorria apalduz doa Durangaldean ere, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan lez. Horrela, Durangaldea eremu laranjan dago 290 kasuko intzidentzia tasa metatuagaz. Oraindino ere intzidentzia tasa altuak izan arren, Durangaldeak eremu gorritik irten du. Herrien kasuan, Abadiño eta Durango eremu laranjan daude, 412,69 eta 426,72ko intzidentzia tasa metatuagaz; Elorrio eta Zornotza, oster, eremu horrian daude, 201,4 eta 264,39ko tasa

metatuagaz, hurrenez hurren. Osasun Sailak semaforo baten antzeko sistema darabil herriko egoeren berri emateko. Eremuak hiru koloretan banatzen ditu: horia, laranja eta gorria. Irizpideak 5.000 biztanletik gorako herrietan azken hamalau egunetako intzidentziak kontuan hartzen ditu. Jaurlaritzak sistema horren arabera ezartzen ditu neurri murriztaileak.

Badirudi, beraz, 'hirugarren olatua' deritzona atzerantz egiten hasi dela apurka-apurka. Hala ere,

ospitaleetan 68 lagun ingesatu zituzten egunean, eta 153 lagunek ZIUn jarraitzen zuten edizio hau itxi aurretik.

Herri mugakideak

Egoera epidemiologikoak hobera egiteaz batera, Jaurlaritzak neurri berriak ezarri ditu. Astelehenetik aurrera, mugakideak diren herrietara joatea baimendu du, betiere jarduera sozioekonomikoetarako edo aire zabalean kirola egiteko izanez gero.



Durangoko Ermodo kalea.



Urarkako administrazioko kideak.

Kinielak 884.322 euroko saria utzi du Elorrion, Urarka kaleko administrazioan

Herritar batek bete-betea asmatu ditu futboleko 15 partiduen emaitzak, eta 884.322 euroko saria irabazi du

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Futboleko 15 partiduen emaitzak bete-betea asmatu dituen herritarrek Elorrioko Urarka kalean

dagoen loteria administrazioan zigilatu zuen kiniela. Herritarrek 884.322 euroko saria irabazi du.

Urarka kaleko administrazioak 18 milioi euro banatu zituen Gabonetako loterian, 2007an

Elorrioko Urarka kaleko loteria administrazio horrek 18 milioi euro banatu zituen Gabonetako loterian, 2007an. Maila txikiagoko beste zenbait sari ere banatu izan ditu azken urteetan.

Politikan

Mariam Bilbatua
EH Bildu



ZUHAITZEN LANDAKETA

Etorkizuna berdez margotzeko beharra eta nahia erakutsi zuten Durangoko herritarrek aurrekontu parte-hartzaileetan zuhaitz landaketa egitea hautatu zutenean. Otsailaren 28an Zuhatzola parkean egingo den landaketan protagonismo berezia izango dute herriko haur eta gazteek.

Haur eta gazteak modu askan jolasteko eta naturarekiko harremanak garatzeko emango dizkieten espazioak berreskuratu eta sortu nahi ditugu Durangon. Gure herriek porlana eta kotxeen presentziaren eraginez galdu dituzte aurreko generazioek izan zituzten aukerak berreskuratu nahi ditugu, hala nola kaleak eta herriko espazio anitzetan beraien jolasak sortzeko, erabilerak esploratzeko eta naturarekiko harremanak garatzeko. Horregatik, guretzat garrantzitsua da Durangoko hirigunean zuhaitzen landaketak eskaintzen digun aukera ingurumen naturalera hurbiltzeko.

Zuhaitzak landatzeak ingurumena behatzeko, ezagutzeko, parada emango die ekimenaren protagonista izango diren umeei. Galdera ugari planteatzeko eta erantzuteko aukera. Eta, garrantzitsuagoa izan daitekeena, beraien eskuekin eraikitako zerbait izanik, beraiek landatutako zuhaitzarekiko beste harreman bat sortzeko aukera izango dute. Naturaren zaintza egoki batera bideratu daitekeena.

Baina ez dugu hau ekintza isolatu gisa ulertzerik nahi. Egituratuta dauden espazioekin alderatuta, gure inguruan ditugun basoek, errekek, mendiek... aukera pribilegiatuak eskaintzen dituzte umeen gozamenarako eta beraien garapen integralean laguntzeko.

Durungaldea asteen

Led argiak ipini dituzte Eleizaldeko futbol zelaiko argiztapena hobetzeko

Elorrio I Eleizalde futbol zelaia led argiztapen berria estreina-tuko du. Udaletik azaldu dutenez, dagoeneko kendu dituzte Eleizaldeko futbol zelaiko argi zaharrak, eta ipini dituzte led argiak. Gainera, Elorrioko Udaletik jakinarazi dute "argirik berritzaileenak eta eraginkorrenak" ipini dituztela, eta horrek futbol zelaiko argiztapen arazoa konponduko duela. Bestalde, lan hauek egiteko, klubek eta instalazioaren erabiltzaileek egindako eskariak kon-tuan hartu dituztela azaldu dute.

Hemeretzi abadiñarrek parte hartzen dute bertako Berbalagun taldeetan

Abadiño I Mikel Garaizabal alkate eta euskara zinegotziak azaldu duenez, Berbalagun saioak osasun neurriak beteta egiten dira, eta bertan batzen direnek euskaraz "giro lasai eta adiskidetsuan" aritzeko aukera dute. Parte hartzaileak lau taldetan banatuta daude. Eguaztenetan (15:00etan eta 17:30ean), eta barikuetan (18:00etan) batzen dira. Parte hartu gura dutenek durungaldea@aek.eus eta hgi-nea@abadiano.eus helbideetara idatzi dezakete.

Mendizale federatuek erkidego osoan ibili daitezkeela zabaldu du EMFk

Durungaldea I Euskal Mendizale Federazioak (EMF) zabaldu duenez, federazioaren lizentzia duten kideek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa artean mugitu ahal izango dira euren mendi jarduera egiteko, eremu gorrian dauden herrietan izan ezik. Hori bai, desplazamendu horiek lizentziak jasotzen duen jardueran aritzeko izan beharko dute, hau da, ibiltzeko, eskalatzeko, eskiatzeko... Jarduera horiek gehienez sei laguneko taldetan egin ahalko direla azaldu du EMFk.

Iritzia

IZURTZAKO UDALAREN GEHIEGIKERIAK "ONDA BERDEAN"

Duela gutxi kontu tribunalak salatu du (2017ko txostenean), udalen aldetik askotan erabiltzen dela prozesu bat "Presako desjabetzea" jabeen eskubideak murrizten dituztelako. Hori gertatzen da Izurtzan, 7 jabe, 7ak desjabetuta. Bidean, jabeek eskatu dituzte: trukea, zesioak, akordioak, proposamenak... Udalak ezetza eman du. Niri esan didate espaloi bat egingo zutela pabilioietatik base-riko pareta bateraino. (100-150 metrokoa). Baina, era berean, Urbanismoko Plan berriarekin (3-5 urtera), bota berri den espaloian bihurtzuna bat egin nahi dute (badirudi dirua xahutzeko dagoela). Orduan, alboko bi etxeak orain dagoen espaloi barik geratuko lirateke. Gainera, esan zuten ez zutela denborazko okupaziorik egingo; nire kasuan, luzerako 2,5 metro hartu beharrean, ia 9 metro hartu zidaten. Hainbat bider salatu behar izan dut udaletxean, eta 9 egun pasatu eta gero (kasu egin barik), Ertzaintza ere etorri behar izan da. Niri hau egin badidate, presta daitezela gainerako desjabetuak.

Enrique Barañano (Izurtza)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

Zuzenketa

Joan zen asteko alean (838. alea), Durungaldeko ikastetxe publikoe-tako jantokien inguruko erreportajea kaleratu genuen. Erreportaje horretan, akats bat zegoen. Landako Eskolan, catering zerbitzua beharrean sukalde daukate eta bertan prestatzen dute janaria. Barkamena eskatu gura diogu Landakoko hezkuntza komunitate osoari sortu ahal izan ditugun eragozpenengaitik.



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



> **INGURUMEN GEHIGARRIA**

**ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI
BIODEGRADAGARRI
ETA BIRZIKLAGARRIAK**



www.soul-cemosa.es

cemosa

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99



INGURUMENA • JOSEBA DERTEANO

Zelan aldatu da zuen jarduera pandemiaren eraginez?

Orain arte, irailean, ikasturte osorako izaten genituen eskolen erre-serbak, baina ikasturte honen hasieran ikastetxe askok irteerarik ez egitea erabaki zuten. Hau ikusita, beste irtenbide batzuen bila hasi ginen. Asteburuko ekintzak astean zehar egiten hastea izan zen horietariko bat, mendi ibilaldiak hain zuzen ere. Eta, gure sorpresa-rako, mendi ibilaldiak astean zehar antolatzeak oso harrera ona izan zuen. Antolatzen genituen ibilal-dietako taldeak osotu eta itxarote zerrendak izan genituen. Hezkuntza Programari dagokionez, ikastetxeek arazotzat hartzen zutena autobusean etortzea zenez, Urkiola Parke Naturala osotzen duten udalerrietako ikastetxeei eskaintza berri eta ezberdin bat egiten hasi ginen: geu joatea herri horietara, eta eskola ondoko inguru natural batean zenbait dinamika lantzea, mitologia, landaretza eta beste hainbeste gai jorratuta. Oraingoz, Dimako, Atxondoko eta Matienako eskolekin egin dugu eta poliki-poliki beste udalerrietara ere zabaltzen joateko asmoa dugu. Orain arte Lehen Hezkuntzakoekin egin dugun arren, eskaintza hau DBHra zabaltzeko aukera ere ikusten dugu. Eskaintzen ditugun jardue-ra guztiak, Hezkuntza Programa, mendi ibilaldiak, ekintza autogidatuak... dohakoak dira.

Honez gainera, Bizkaiko hiru parke naturalei buruzko material digitala ere prestatzen hasita gaude. Material honen barruan, ziklo bakoitzari egokitutako aurkezpen bat, galdera sorta bat, rol jolasak egiteko dinamikak eta abar aurkitu ahal izango dira.

Zenbat irteera egin dituzue?

Hainbat irteera egin dugu astean zehar; Dantzalekura, Andastora, Astxikiko bira, Otxandioko ibilbidea, Untzillatxeko bira, Ikazkinen bidea, Baltzola ingurura... Momentuan zegoen araudira egokituta, hainbat ibilbide antolatu dugu. Ibilbiderik gehienak nahiko errazak izan dira eta Parkeko toki ezezagunak ezagutaraztea zen gure helburua. Tal-

“Mendi ibilaldiak astean zehar antolatzeak oso harrera ona izan du; itxarote zerrendak izan ditugu”

Urkiolako Toki Alai Interpretazio Zentroak pandemia sasoiara moldatu behar izan du bere eskaintza, eta arrakasta izaten ari dira. Uritz Areitio bertako ingurumen hezitzailea da



de txikiak izan behar zirenez, honek beste giro hurbilagoko bat sortzen ere lagundu digu eta jendeak zituen kuriositate eta zalantzak ahal ziren neurrian asetzen ahalegindu gara. Momentu honetan hain murriztuta dagoenez mendi irteeretan parte hartu dezaketen pertsonen kopurua, beste ekintza mota batzuk antolatzen hasi gara. Umeentzako ginkanak udalerrietan, adibidez.

Zelan izan dezakegu ekintza hauen berri?

Besteak beste, Bizkaiko Parke Naturalen lagun eginez gero, hiru parke naturalen inguruko informazioa jasotzeko aukera dago, eta urtaro bakoitzaren hasieran Bizkaia Naturala aldizkaria argitaratzen dugu.

Bestela, egoera normala denean, zer ikusi dezake Toki Alai bisitatzen duenak?

Toki Alai bisitatzera etorritakoan, ez dago ezberdintasunik orain

eta lehen ikusi genezakeenaren artean. Parketxean hiru gela daude ikusgai, pantaila eta jolas elkarre-ragileak dituztenak. 10 minutuko ikus-entzunezko bat ere badugu. Erakusketa finkoaz gainera, hainbat ekintza autogidatu eskaintzen dugu urte guztian zehar, *Saibigaine-ko* laino misterioitsuaren bila eta ginkana basoan, adibidez.

Zer komentatzen dute bisitarie?

Bada Durangaldeko jende asko Urkiolara sarritan etorri dena baina

Parketxea dagoela jakin ere ez dakiena, eta etorri izan direnean sorpresa hartu dutenak. Askotan ondotik pasatu baina barruan zer zegoen imajinatzen ez zutenak. Erakusketan, azalpen geologikoak ikusi daitezke: lurra itsaso azpian zegoela, eta mendiak zelan sortu ziren, adibidez. Baita ikusten ditugun haitzen barrualdea zelakoa den ere. Urkiola ur muga dela azaltzen duen panela ere badago. Urkiolan aurki ditzakegun ekosistemak eta basoko bizidunen inguruko jolasak ere baditugu, mitologiari buruzko bideo labur bat, giza-jarduerak paisaian eragindako aldaketak eta Eskuagatxen hil zen Bizkaiko azken hartza ere bai.

Parkeko animalien artetik, zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Kakalardo adarluze alpetarra [*Rosalia alpina*], adibidez. Bera da baso osasuntsuen erakusleatariko bat. Bere beldarrek egur ustela jaten dute eta baso aberatsaren adierazle dira, ekosistemen birziklatzailatzat hartu ditzakegu eta. Bestalde, inguruan dugun kareharrizko mendilerro honetan, bada Afrikatik datorren hegazti bat: sai zuria. Sai zuria zein beste hegazti ugariaren bizilekua babesteko asmoz, Urkiolako mendietan gauzatu daitezkeen jarduera batzuk mugatuta daude epe zehatz batzuetara. Lehendik ere jendea bazebilen arren mendietan, pandemiaren ondorioz inguru naturala jo duen jendetza izugarria da, eta kontuan izan behar da inguru naturala errespetatu egin behar dela eta ahalik eta kalterik gutxien egiten ahalegindu behar dugula esparru naturalak kontserbatu gura baditugu.



Ikasle gazteekin egindako ekimen bateko irudia.



Kakalardo adarluze alpetarra. ZIGOR ARTEAGA

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa

Iraunkortasunaren aldeko konpromisoa, ardatz estrategiko bat EROSKIrentzat

EROSKIk konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko, eta ekimen askotarikoak lantzen ditu bere jarduerak inguru hurbilean duen eragina murrizteko. Produktu iraunkorrako merkaturatzea, ontzien eta bilgarrien ekodiseinua lantzea, baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea, ingurumenaren gaineko arrastoa murriztea, hondakinak ekonomia zirkularraren ereduarekin kudeatzea, bioaniztasuna zaintzea... Horiek guztiak betebeharrak dira EROSKIrentzat, eta halaxe jasoak ditu Osasunaren eta Iraunkortasunaren aldeko Konpromisoetan.

Iraunkortasunarekin duen konpromisoa ardatz estrategikoetako bat da EROSKIrentzat, eta iaz mugari garrantzitsuak jarri zituen lerro horretan. Besteak beste, lehen izarra lortu zuen Lean&Green proiektuan —animaliaren ongizatearen ziurtagiria— bere tokiko esnearen gamarako eta produktu ekologikoen gama berrirako.

Lean&Greenen lehen izarra

Orain berriki, EROSKIk bere lehen Lean & Green izarra lortu du, Ekoizleen eta Banatzaileen Elkartearen eskutik CO2 emisioak %20 murrizteko helburua gainditzeagatik bere logistika eta garraio prozesuetan. EROSKI, hala, iragarritakoa hobetu ez ezik —%25era iritsi da—, soilik 4 urte behar izan ditu, Lean&Greenek 2018an saritutako ekintza planak 5 urteko epea bazekarren ere.

EROSKIk, kontsumoaren sektoreko beste 18 enpresarekin batera, Lean & Greenen lidergoa du, Europako lankidetzaren plataformarik handiena, bereziki bideratua hornidura kateari loturiko emisioak gutxitzeko. Nazioarteko eta lanbide arteko ekimen bat da, helburu duena enpresei laguntzea berotegi efektuko gasak gutxitzen; horrekin batera, asmoa da helburu zenbakarri bat iristen laguntzea eta beste enpresa batzuekin maila nazionalen bezala Europa mailan lankidetzan aritzea, baita jardunbide onak partekatzea ere, eta iraunkortasunaren erreferente izatea, segimendu sistema garden eta jarraitzeko moduko baten bidez.

Animalia ongizatearen esnea eta ontzi iraunkorra

EROSKI aurrera egiten ari da elikadura iraunkoragoaren aldeko



EROSKI saritua izan da, bere logistika eta garraio prozesuetan CO2 emisioak %20 baino gehiago murrizteko helburua gainditzeagatik.

bidean, eta oraingoan, animalien ongizatea bermatzen duen ziurtagiria eskuratu du EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan, tokian tokiko esnearentzat; gainera, ingurumena gehiago errespetatzen duen ontzia sortu du esne gama horrentzat. Welfare Quality® ziurtagiria da, eta, EAEn eta Nafarroari dagokionez, IRTA Nekazaritzako Elikagaiak Ikertzeko Institutuak egiten du ikuskaritza NEIKER Nekazaritza, Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutuarekin batera. WelfareTM ziurtagiriak bermatzen du esne-behiekin elikadura, bizitoki eta osasun onak dituztela eta jokabide naturala izateko aukera, lehenengo aldiz, zuzeneko behaketan zentratuta. Era horretan, kontsumitzaileek Europa mailan dituzte bermatuak neurri estandarizatu eta adostu batzuk, animalien ongizatearen alde egiteko ekoizpen ziklo osoan.

Ziurtagiriaz gain, tokiko esne gama hori ontzi iraunkorrako batean saltzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako esnearen kasuan, ingurumena gehiago errespetatzen duen ontzi batekin merkatutzen da; gehienbat material berriztagarri egina dago; izan ere, FSC® ziurtagiria dakar haren kartoiak, eta, hala, berriztagarri dago iturri arduratsuetatik datorrela,

eta hura ekoizteko emititu den CO2-a zerora neutralizatu izan dela CarbonNeutral® programaren bitartez.

Eko Bio sorta berria

Produktu ekologikoen alde apustu egitea da EROSKIk Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde

hartuak dituen konpromisoen zutabeetako bat. EROSKIk marka propioko produktu fresko eta ekologikoen sorta bat ateratu du bere sare komertzialeko saltoki guztietan eta online supermerkatuan. 2020an, hemeretzi fruta eta berdura ekologikoren erreferentziak ateratu ditu marka

propioan. Lehendik ere bazituen 30 produktu bai EROSKI Bio elikagaienak eta bai EROSKI Eco drogeriakoenak batuta, horiek ere orain gutxi sartuak, eta aurtengo ugaritu egingo ditu erreferentziak eta kategoriak.

Orain 20 urte pixkanaka fabrikatzaileen markako lehen produktu ekologikoak sartu zituen EROSKIk bere dendetan, eta orain beste pauso bat eman du marka propioko sail ekologiko bat aterata. Honako fruta eta berdura ekologiko hauek sartu ditu bere sailean: laranja, sagarrak, platanoak, brokolia, cherry tomatia, kiwia eta baratxuria; eta elikagaien kategorian, nabarmentzekoak dira beste honako hauek: berdurak, lekale lehorrak, pasta, zukuak eta galletak.

Sail honek darabiltzan ontziak ingurumen irizpideekin diseinatuak izan dira, iraunkorrak izan daitezkeen. Izan ere, EROSKIk helburutzat hartu du bere markako ontzi guzti-guztiak ekodiseinuzkoak izatea, eta ziurtatzea den-denak 2025erako birziklagarriak direla eta %20 gutxitzen dela merkatutzen diren plastikoen tona kopurua. Hori dela-eta, EROSKI Natur Bio sailean dituen fruten eta berduraren %79 pisura saltzen dira, eta, ontziratuta daudenen kasuan, ohiko plastikoen alternatibak erabiltzea bultzatzen da.



71 arbola landatu dituzte Durangoko hainbat lekutan

Udal teknikariek azaldu dute zuhaitz horiek urtean 1.500 bat kg CO2 xurgatuko dutela; aurrekontu parte hartzaileetan hartu zen horiek landatzeko erabakia

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangon paseatzen dabilenak ingurura ondo begiratzen badu, al-daketaren bat igarriko du paisaian: zuhaitzak.

2019an, Durangoko Udalak aurrekontu parte hartzaileak egin zituen lehenengoz. Besteak beste, zuhaitzak landatzeko kanpainak 859 boto jaso zituen. Herritarren arduen artean ingurumena gorengo postuetan dagoen seinale da hori. Bada, erabaki hori gauzatu egin da orain. Joan zen astean, udalak

zuhaitz horiek landatzeari ekin zion. Otsailaren 8tik eta 19ra bitartean, 71 arbola landatuko dituzte. Otsail amaieran, gainera, beste 50 zuhaitz landatuko dituztela aurre-ratu dute udal arduradunek. Hainbat motatako arbolak dira: bertako haritza, urkia, aranondoa, astigarr, likidanbarra eta izeia. “Aurrekontu parte hartzaileen bitartez, durangarrek euren lehentasunak erakusten dizkigute kasu askotan, eta guk, horrela ulertzen dugulako politika egiteko era, euren eskariei

erantzuten ahalegintzen gara. Kasu honetan, Durango berdeago baten aldeko beste urrats bat emango dugu”, adierazi dute Aritz Bravo eta Jorge Varela zinegotziek.

Arbolak nonahi

Sasikoa kalea, Aramotz auzunea, Laubideta, Zuhatzola parkea, Mikeldi kalea, Ibaizabal auzoa eta San Rokebide kalea dira arbola hauek landatzeko aukeratu dituzten lekuetariko batzuk. Kaleetan zein berdeguneetan daude.

Udaleko teknikariek diotenez, zuhaitzak landatzeak onura nagusi bi ditu herriarentzat. Alde batetik, herria “jantzi” egiten dute, lurzoru gogorra ordezkatu egiten dute espaloietan, eta, hiri barruan kolore biziak sartuta, bertako naturari indarra ematen diote.

Bestalde, badago datu esanguratsu bat. Zuhaitzek CO2 xurgatzeko ahalmena dute. 71 zuhaitz hauek landatuta, urtean 1.500 bat Kg CO2 xurgatuko dute eta arnasten dugun airearen kalitatea hobetuko dute.

Mantenu aldetik, ez dute zainketa handirik behar. Lehenengo urtean, udan batez ere, dezente ureztatu behar dira, ondo sust-traitu daitezzen. Urtean 2-3 bider, inguruko belar txarrak kendu eta altuera baxuko adarrak moztu behar dira. Ahal izanez gero, inausketa txikiak egin behar dira. Parkeetan landatutakoak ez dituzte inausken, zuhaitzak bere naturaltasunean eta gizakiak ukitu barik izaten duelako forma edo irudirik ederrena.



San Fausto inguruan landatutako arbolak.



Durangoko udaleko beharginak arbolak landatzen.

Lurraldea
konektatzen
dugu, zerbitzu
homogeneoa
eta tratamendu
eraginkorra
bermatuz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, konpromiso
soziala eta ingurumen-erantzukizuna.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeauas.eus

Pornografiaren kontsumoak edo heziketa sexualaren gabeziak dituen ondorioei buruzko hausnarketa umoretsua

'Porno Vs Afrodita edo I love #gorkaurbizu' antzezlanak Berrizko Kultur Etxean egongo da ikusgai zapatuan, hilak 20, 19:00etan



Patricia Urrutia, Juanjo Otero eta Jon Zumelaga.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Gaztetxea itxi aurreko azkeneko kontzerturako soinu proba da rama ikuslea *Porno Vs Afrodita edo I love #gorkaurbizu* antzezlanak. Ane, Karmelo eta Unai gaztetxeko taula gainean daude, bateria, gitarra eta baxua parean dituztela; aspaldiko lagunak dira hirurak, 40 urtetik gora dituzte eta euren musika taldearen azkeneko kontzertua izango da. Abiapuntu horregaz, pornografiaren kontsumoak eta harreman sexual eta afektiboek gazteengan (eta ez hain gazteengan) duten eraginaz hausnarketa egitera bultzatuko dute ikuslea. "Gaiak hasieratik eman zigun arreta, gu jada hain gazteak izan ez arren", azaldu du Patricia Urrutia Benetan Be konpainiako zuzendari eta aktoreak. Juanjo Otero aktore iurretarra da obrako beste protagonistetariko bat, Jon Zumelagaz batera. Beste bina pertsonaiaren azalean ere sartzen dira aktoreak: rock izar idealizatuean, eta, azkenik, jainkoen mailan dauden Porno eta Afroditarenean. "Argi dugu guk ez daukagula ezeren erantzunik, baina norbere iritzia kontrastatzeko baliagarria dela uste dugu. Gure lan-tresna eta adierazteko modua umorea da, eta taula gainean jarri eta geure buruaz barre egiterakoan indar

askatzaile hori martxan jartzea", adierazi dute.

Gai arantzatsua, umoretik

Nafarroako ikastetxeetan abiatutako Skolae hezkidetzaren proiektuaren ezarpenak sorturiko zala-partagaz hasi ziren Benetan Be-k kideak antzezlanean beharrean. "Gaia ez da samurra, eta, horregaitik, ikerketa lan sakona egin dugu", esan dute. Alde horretatik ere, pozik daude antzerki konpainiako kideak jasotako erantzunagaz. "Garrantzitsua da esperientziei buruz berba egitea, are gehiago geroago eta isolatuago gauden garai hauetan. Elkarregaz antzoki

Juanjo Otero aktore iurretarra da antzezlaneko hiru protagonistetariko bat

batean egotea esperientzia bat konpartitzen, jarleku bat tarteko edukita ere, azpimarratzeko modukoa da", gaineratu dute.

'Porno Vs Afrodita' erritmo handiko antzezlanak da, eta fisikoki zein emozionalki erronka izan dela nabarmendu du Urrutiak: "Gu aktoreak gara, ez musikariak. Baina aurretik ere ibilitakoak gara musika taldeetan. Antzerkikoa

lagun talde bat da, baina urteak daramatzana jotzen, eta asko entseatu dugu hori modu duin batean islatzeko".

Durango eta Abadiñon

Benetan Be-k urrian estreinatu zuen bere bigarren obra hau, Bilboko BAD jaialdian. Urtea amaitu

bitartean, beste emanaldi batzuk eskaini ostean, abiada hartuta dabilta 2021 honetan. "Oso harreman ona eduki dugu, antzokiak ikusle lepo eduki ditugu; gaia samurra izan ez arren, umoretik heltzen diogu, tribializatu barik, eta zuzeneko musika jotzeak eta komedia izateak, ba, eragina du publikoarengan". Urtarrilean, Durango San Agustinen eta Abadiñoko Errotan eskaini zituzten emanaldiak, eta Urrutiak gogo

Azken asteetan, astebururo eskaini dituzte emanaldiak; tartean, Durango eta Abadiñon

onez gogoratzen ditu. "Sekulako jaia izan ziren, segurtasun neurriak hartuta, jakina. Ikusle goak *Beste bat* eskatzen amaitu zituen emanaldiak, pentsa! Guk abesti batzuk prest ditugu zuzeneko-erako, baina beharbada gehiago prestatu beharko ditugu", azaldu du barreka.

Berrizkoaz gainera, martxoan eta apirilean ere emanaldi ugari dituzte lotuta. Besteak beste, Zornotza Aretoan egongo dira, apirilaren 23an.



Benetan Be.



Mikel Urionaguena, Elene Carreto, Ane Abanzalegi eta Ferandno Saenz de Ugarte.

Dagaz ekimena aurkeztu dute dantza garaikidea herritarrei hurbiltzeko

Durangon, otsailaren 22an ipiniko dute martxan ekimena; Berrizen ere abiatuko dute

DANTZA • ARITZ MALDONADO

Dantza garaikide talde amateurrak sortzeko helburuagaz, Dantzas konpainiak Dagaz ekimena ipini du martxan hainbat udalerrigaz elkarlanean. Bizkaian hiru herritan ipiniko dituzte martxan saio hauek; horietariko bi, Durangaldean: Berrizen eta Durangon. Azken honetan, datorren astelehenean izango da lehenengo saioa, hilak 22. Astelehenean 19:00-20:30 bitartean egingo dira saioak, San Agustin kulturgunean. "Dantzatzeko gune bat sortu gura dugu, baina

ez dantzan egiteko bakarrik, baita sorkuntza sustatzeko ere", azaldu du Elene Carreto dantzari eta sortzaile durangarrak. Hain zuzen ere, Durangoko egitasmoa Carretok berak dinamizatuko du. Hernanikoa (Gipuzkoa) ere berak gidatuko du, eta sortu daitezkeen elkarlanak nabarmendu ditu. "Egongo diren taldeetako bakoitzak bere bidea egingo du, eta hori oso polita da", gehitu du dantzari durangarrak. Fernando Saenz de Ugarte Dantzas konpainiako zuzendariak ere elkarlan hori azpimarratu du. "Interesgarria

izango da maila desberdinetako jendeak parte hartzea, elkarregaz ikasteko".

Pandemiaren eragina

"Herrietako talde horiek egindakoa beste leku batzuetan erakustea da gure asmoa", gehitu du Saenz de Ugartek. Dantza saioak ez ezik, topaketak, tailerrak eta emanaldiak antolatzeak asmoa du Dantzazek, "osasun egoerak baimentzen duen neurrian". Izena emateko, parte hartu gura dutenek dagaz@dantzaz.eus helbide elektronikora idatzi behar dute.

Bart Saxek 'Garai zuri-beltzean swing' ikuskizuna dakar

Bartolome Ertzillan sorturiko taldeak elkartasun kontzertua eskainiko du otsailaren 26an, San Agustinen

MUSIKA • A.M.

Bart Sax taldeak ordubete inguruko *Garai zuri-beltzean swing* emanaldia prestatu du otsailaren 26rako. San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 19:00etan. Bartolome Ertzilla Musika Eskolako taldea Itziar Castriño irakasleak zuzentzen du, eta orain arteko moduan sustrai afroamerikarreko musika tradizionalan oinarrituriko doinuak eskainiko dituzte, beste musika estilo batzuen ukituekin.

Kontzertuan baturiko dirua Río de Oro elkartearen proiektuak finantzatzera erabiliko da. Hezkuntza bereziko eskolen zerbitzu eta azpiegiturak hobetzea izango da helburua. Sarrerak bost euroan egongo dira salgai, Durangoko Arte eta Historia museoan edo Kutxa-banken bitartez; kulturgunean bertan ere erosi ahalko dira emanaldia hasi baino ordubete lehenago, sarrerarik geratuz gero.



Bart Sax.

Gai librean

Pantailismoa

Gutxi libratuko dira pantailen menpeko izatetik. Neurri handiago edo txikiagoan, baina ohetik jagi orduko telefonora luzatzen dugu eskua: sare sozialen zerrenda amaigabea da. Gero, norberak bere egunaren errepasoa arretaz egiten badu, konturatuko da automatikoki zenbat aldiz zapaltzen duen mugikorra desblokeatzeko botoia: edonoren zain dagoela, kaletik oinez doala, bestelako edozein jardun bukatu eta segituan, kaka egiten dagoela. Geure buruarekin egoteko aukera dugun bakoitzean, badirudi gurago dugula pantailaren konpainia.

Norbere buruari diogun errespetu falta horrek islatzen du besteengana-ko errespetu falta.

Zenbat aldiz egon zara pantailari adiago parean duzun lagunari baino?



Ainhoa
Urien Tellechea
Idazlea

**Norbere buruari diogun
errespetu falta horrek
islatzen du besteengana-
ko errespetu falta**

**Kontua ez da puritanismoa
bizi eta aldarrikatzea;
zorionez, inor ez baitago
bekatutik libre**

Norbaitekin elkarriketa sanoan egon eta mugikorra hartzen duzunean, salbuespenak salbuespen, aurrean daukazuna baztertzen duzu, pantailakoa bera baino gehiago inporta zai-

zula diozu. Ikusgarritasuna kentzen diozu lagunari, errealtatea ebaditu egiten da eta harekin batera bera ere bai, errealtate birtualean murgiltzen zaren bitartean.

Kontua ez da puritanismoa bizi eta aldarrikatzea; zorionez, inor ez baitago bekatutik libre. Hala ere, oreka bilatzen saiatu behar dugu: arduraz erabili pantailak, eta norbera zein ingurukoak zaindu; erabiltzen ikasi dugun era berean ikasi erabiltzeari uzten. Begiratu parean duzun gorputzari pantaila batek bien artekoa zapuztu gabe. Ikusi parean duzun gorputza, ikusi aldean duzun gorputza. Noizean behin begiratu autobuseko leihotik eta sentitu gauzak gertatzen ari direla, hemen eta orain. Hartu momentu bat, utzi alde batera pantailak, eta konturatu gaitezen bizitza beste leku batzuetan ere badela, badagoela.



**Irene Oguiza
Martinez**
Athleticeko jokalaria.
Durango | 2000

“Hasieran debutari moduan sentitzen nintzen”

Lesio luze bat gaindituta, Irene Oguiza Athleticen lehenengo taldera bueltatu da eta bere lehenengo gol biak sartu ditu nagusiekin

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Athleticeko lehenengo taldeagaz debuta eginda, Irene Oguiza esne-mamitan zegoen, baina zorigaitzoko lesioa heldu zen. Hala ere, Oguiza ez da burua makurtzen duen horietarikoa. Gogor lan egin du lesioa gainditu eta lehenengo taldera bueltatzeko. Orain asteburu bi, erdilari durangarrak gol bi sartu zituen Espanyolen kontrako partiduan.

Nork esango zizun orain hile gutxi Espanyolen aurka titular aritu eta, gainera, gol bi sartuko zenituela, lehenengo taldeagaz sartzen dituzun aurrenekoak.

Benetan ere! Partidu borobila izan zen eta ilusio itzela egin zidan. Bigarren gola ospatzen genbiltzala taldekideek zoriondu egiten ninduten eta ez nekien zer erantzun. Sinistu ezinik nengoen. Amets batean nengoela sentitzen nuen.

Gola da konfiantza dosirik onena?
Dudarik barik. Urduritasuna alde batera uzten laguntzen du. Gainera, golek partidua irabazteko balio badute, askoz ere hobeto.

Iazko otsailean lesionatu eta azaroan bueltatu zinen zelaietara, Athletic B taldeagaz. Zelan gogoratzen duzu une hura?

Mallorcan izan zen. Urduri nengoen eta lehenengo partiduetan apurka-apurka erritmoa hartzea zen helburua.

Hasieratik erakutsi zenuen golerako usaimena. Gol bat Collerense taldearen kontra eta beste bi Osasunaren aurkako derbian.

Collerensereren kontra normalean baino aurrerago jokatu nuen, erdi-punta postuan. Egia esanda, gol erraza izan zen, baloiari bultza egin besterik ez nuen egin eta. **Baina han egon beharra zegoen.**

Bai, hori bai (barreak). Osasunaren kontra buruz sartu nuen bat, eta arearen kanpotik egindako jaurtiketa bategaz bestea.

Errendimendu horrek lehenengo taldearen atea zabaltu zizun behin. Kasu honetan, 'debuta' berba ez da zehatza, baina debutari moduan sentitu zinen?

Egia esanda, bai. Pertsona urduria naiz berez, eta, gainera, pasaturikoa pasatuta, hasieran debutari moduan sentitzen nintzen. Lehenengo taldeagaz aritzea itzela da. Berdin da debuteko partidua bada edo beste edozein.

Joan gaitezen iazko otsailera. Zelan gogoratzen duzu lesioaren unea?

Coruñan gertatu zen, Deportivo-ren kontra jokatzeko genbiltzan partiduan. Nekatuta nengoen eta pase bat ematerakoan pisu guztia ezker hankak hartu zuen. Keinu txar bat egin nuen eta segituan igarri nuen.

Izan duzu horrelako lesio larririk aurretik?

Bai. Athleticeko nire lehenengo denboraldian, 16 urteagaz, lesio berdina izan nuen: belauneko lokailu gurutzatua apurtu nuen. Aurreko esperientzia hori banuenez, Coruñan zelaitik erretiratu nintzenean, neure barruan banekien gurutzatua izan zitekeela.

Une horretara arte amets bat bizitzen zenbiltzan, asteburu bi lehenengo taldeagaz debutatu eta gero.

Bai. Hiru hilabete lehenengo taldeagaz entrenatzen hasi nintzen, astean egun baten. Pauso hori ematea itzela izan zen niretzat. Gero, debutetik gertu nengoenean, entrenamendu guztiak talde nagusiagaz egiten nituen. Orduan hasi nintzen dena asimilatzen. Eta debuteko unea... bada, imajinatu dezakezu, ametsa erreallitate bihurtu zitzaidan. Gainera, nire gurasoak hantxe egon ziren, Madrilen, nire debutean. Ask

gozatu nuen. Eta, bai, lesioa heldu zenean, nire egoera guztiz aldatu zen, bat-batean.

Ebakuntza egin eta astebetara konfinamendua heldu zen. Egoera atipiko horretan, zelan bideratu zenuen errehabilitazio prozesua?

Lehenengo hilean ezin nuen askorik egin. Behinena zauriak sendatzea zen eta horretara joaten nintzen Lezamara, sendaketak egitera. Hileak aurrera joan ahala, bizikletan ibiltzen hasi nintzenean, Ondarroako nire fisioterapeutarengana joaten hasi nintzen, belauneko mugikortasuna lantzeko. Neure kontura ere ariketa asko egiten

nuen koadrizepsa indartzeko. Baimen bereziak nituen hori guztia egiteko.

Guztiz ahaztuta duzu lesioa?

Partiduak jokatzera edo entrenamenduetan lesioa ahaztuta izaten dut. Ez dut beldurrik eta topera aritzen naiz. Baina partiduen ostean, nekatuta nagoenean, zerbait igartzen dut, belaun ingurua apur bat minbera izaten dut. Baina une horietan baino ez da. Ez dit bestelako arazorik eragiten.

Atera daiteke positiboa den ezer esperientzia honetatik?

Bai, jakina. Lehenengo lesiotik nagusiago, eginago eta mentalki askoz ere indartsuago irten nuen. Bigarren lesiotik ere inoiz baino motibatuago eta gauzak egiteko gogoagaz irten dut. Entrenamendu bakoitza baloratzen ikasi dut.

Horrelako momentuetan, inportantea da gertuko jendearen babesa?

Lesio luze batek ezinbestean talde-tik banatzen zaitu apur bat; hau da, eurak entrenatzen diren bitartean norbera erizaindegian dago. Baina ez dut kexarik. Taldekideek asko lagundu didate eta beti babestu nauten. Baita nire familiak ere, batez ere lehenengo egunetan, une gatz horietan. Egia esanda, jende asko izan dut nire inguruan eta denekin esker oneko nago.

Joan da laino beltza. Eta hemendik aurrera, zer?

Lana eta lana. Entrenamendu bakoitzean topera arituko naiz eta beti ilusioz. Badakit zer den entrenamendu asko galtzea, eta orain gozatu egiten dut egun bakoitzagaz.



Irene Oguiza Espanyolen kontrako gol bat taldekideekin ospatzen. ATHLETIC CLUB.



Abadiño futbol kluba da adierazpena babesten duen eskualdeko klub bietako bat.

13 taldek osasun bermeak eskatu dituzte Ohorezko Mailari berrekiteko

Elorrio eta Abadiño daude tartean; adierazpen bat kaleratu dute arrazoiak emateko

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Iazko urrian, lehenengo jardunaldia jokatu eta gero, geratu egin zuten Ohorezko Maila. Orain, Bizkaiko Futbol Federazioak erabaki du gaur egungo egoera partiduei berrekiteko modukoa dela, eta bigarren jardunaldia asteburu honetan jokatu da.
Erabaki horren kontra agertu dira Ohorezko Mailan ari diren 20 taldeetatik 13. Eskualdeko bi daude tartean: Elorrio futbol taldea eta Abadiño futbol taldea. 13 klub horiek adierazpen bateratu bat kaleratu dute euren arrazoiak emateko.

Taldeetako kapitainek sinatu dute adierazpena, denen izenean. Une honetan ligari berrekitea "presatsua" dela diote eta "arrisku-tsua eta eskasak" diren baldintzetan gauzatuko dela.
Testik egiten ez dela salatu dute, eta segurtasun neurriak aldarrikatu dituzte. "Bizkaiko federazioaren partetik astero COVID-19a atzemateko antígeno testak egitea eskatzen dugu. Proba horien kostua federazioak hartu beharko du bere gain, eta inola ere ez klubek edo futbol jokalariek", adierazi dute.

Horrez gainera, sinatzaileen iritziz, federazioak bitartekoak ipini beharko lituzke ondoko segurtasun neurriak betetzen direla segurtatzeko: "Taldeetako delegatuak deialdian dauden jokalaria guztiek testak pasatu dituztela konprobatzera behartzea; epaileek euren aktetan delegatuen aitortza jasotzea eta klubak partida guztien aurretik dagozkien testak pasatu dituztela berresten duen zerrenda bidaltzera behartzea".
"Gutxieneko" neurri horiek barik lehiaketa "ez dela berrabiarazi behar" uste dute.

Murgoitio eta Villa Espainiako txapelketarako sailkatu dira

Joan zen domekan, Gontzal Murgoitio elorriarrak eta Aritz Villa abadiñarrak Getxoko krosa irabazi zuten 23 urtez azpikoan, eta Getafen izango den hitzordurako sailkatu ziren

KROSA • J.D.
Joan zen domekan, Getxoko krosa lehiatu zen. Diziplinako korrikalaririk onenak aritu ziren bertan. Asteburu bi barru, otsailaren 28an, Espainiako txapelketan Euskadiko selekzioa nortzuek osatuko duten erabakitzea zen helburua.
Eskualdeko korrikalari asko nabarmendu zen. Denen gaitetik, Gontzal Murgoitio elorriarra (Durango Kirol Taldea) eta Aritz Villa (Bidezabal) abadiñarra aipatu daitezke. Sekulako lana eginda, 23

urtez azpiko lasterketak irabazi zituzten eta Espainiako txapelketarako sailkatu ziren.
Durangaldeko beste hainbat korrikalari ere sailkatu zen Espainiakorako: Bidezabal taldeko Oihane Irusta (Durango, 2001) 23 urtez azpikoan, hirugarren eginda; Itsaso Atutxa (Durango, 2003) 20 urtez azpikoan, laugarren eginda. Izaro Egibarrek (Durango, 2003) ere Getafera joateko aukera du, 20 urtez azpikoan bosgarren tokian sailkatuta.



Gontzal Murgoitio, goian erdian, eta Iritz Villa, behean eskumeren.

Jokaldia

Mendiko lasterketak 2021ean

Mendiko korrikalariok desiratzen egon gara 2020a behingoz agurtu eta 2021ari ekiteko. Iazko martxotik hona, gure lehiaketak etenda egon dira ia ehuneko ehunean, eta itxaropen osoa geneukan urte berri honetan egoera ezberdina izango zela eta mendiko lasterketak berriro ere martxan ipiniko zirela. Baina usteak, sarritan, erdia ustel. Normalean, Euskal Herrian otsailean hasten dira lehenengo lasterketak. Aurten, oraingoz, bizi dugun egoera honetan, ezinezkoa da ezer antolatzea. Ezin dira lau lagun baino gehiagoko taldeak batu eta ez da komeni elkar besarkatzea eta musukatzea, irteera puntuan zein helmugan, beti egin izan dugun moduan. Agian bilatu liteke modu edo formularen bat, eskatzen diren neurriak errespetatuz, lasterketak taldeka egin ahal izateko.



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

"Imajinatzen du inork Zegama-Aizkorri ikuslerik barik? Aizkorri puntan batzen den jendetzaren animo eta oihurik"

"Horretxek bereizten ditu Euskal Herriko lasterketak, jendearn berotasunak eta sortzen den giroak"

Behintzat dortsala ipini eta berotu bat hartzeko mendian. Baina, zertarako? Imajinatzen du inork Zegama-Aizkorri mendi maratoia batere ikuslerik barik? Santi Spiritun eta Aizkorri puntan batzen den jendetzaren animo eta oihurik barik? Zegamako plaza erdi hutsik korrikalariak helmugaratzerakoan?


Zegama-Aizkorri maratoia ipini dut adibide moduan, baina berdina gertatzen da hemengo beste edozein lasterketarekin ere (Sara Korrika, Aloñako igoera, Apuko igoera...). Horretxek bereizten ditu Euskal Herriko lasterketak, jendearn berotasunak eta sortzen den giroak batez ere. Lasterketa eguna lasterketa bera baino gehiago delako: goiz edo arratsalde-pasa ederra, aspaldiko lagunekin egotea, tragotxo batzuk jotzea... Zer gehiago behar dugu, ba, zoriontsu izateko?
Auskalo zer gertatuko den aurten lasterketekin. Argi dagoena da ezer ere ez dela berdina izango, eta, alde horretatik, ez nago ziur nik neuk zein puntutaraino gozatuko dudan lasterketa bakoitza. Neurriak neurri, ez diot inori ere sekula besarkada bat, musu bat edo bostekoa ukatuko, ez irteeran, ez lasterketa barruan, ez helmugan.



ITZALAK


Beheko itzal hauetatik zein dago ondo?





SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.



DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.





Botadun katua

ANTZERKIA **DURANGO :: Otsailak 21**

Kanta eta dantzez betetako antzezlan komikoa

Amona batek errota zaharreko trasteak banatuko ditu iloben artean herentzia eta proba modura, iloben irudimena eta kemena pizteko. Glu Glu konpainiaren *Botadun katua* kanta

eta dantzez betetako antzezlan komikoa da, 3tik 9 urtera arteko umeei zuzendurikoa. Emanaldi bi eskainiko dituzte San Agustin kulturgunean, 12:30ean eta 18:00etan.

Otsailaren 19an

ELORRIO errezitaldia
Ameli eta Xirrikituen Jostunak, 19:00etan, gaztetxean. Elorrioko gaztetxearen 33. urteurrenaren barruan.

ZORNOTZA musika
Gauero+: Dientes de Luna, 19:00etan, Zelaietako zentroko kontzertu gelan.

Otsailaren 20an

ABADIÑO zinema
‘Manual de la buena esposa’, 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia
‘Porno vs Afrodita (edo I love #gorkaurbizu)’ (Benetan be), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘La verdadera historia de la muerte de Francisco Franco’, 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Laura Ortegak zuzendu eta Alfonso Torregrosak antzezturiko obra.

ELORRIO musika
Kontzertua: Nikotina & Little Marti Seлектah + Perlata, 18:00etan, gaztetxean. Elorrioko Gaztetxearen 33. urteurrenaren barruan.

Otsailaren 21ean

ABADIÑO zinema
‘Elfkinak’, 17:00etan, Errota kultur etxean.

ELORRIO antzerkia
‘Safari’ (La Baldufa), 16:00etan, Arriola antzokian.

Otsailaren 23an

ZORNOTZA zinekluba
‘Cómo sobrevivir en un mundo material’, 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 24an

BERRIZ film dokumentala
‘Hirugarren emaztea’, 18:30ean, Berrizko Kultur Etxean.

Otsailaren 25ean

ZORNOTZA musika
Musika Gertu: Hatxe taldea, 19:00etan, Zelaieta zentroko kontzertu gelan.

Otsailaren 26an

ELORRIO antzerkia
‘Futbolistok’ (Zuhaitz Gurrutxaga), 19:00etan, Arriola antzokian.

DURANGO musika
Kontzertua: ‘Garai zuri-beltzean swing’ (Bart Sax), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA ipuin kontaketa
Nerea Ariznabarreta ipuin kontalaria, 17:00etan, Herri Bibliotekan. 3tik 5 urtera arteko umeentzat (heldu batek lagunduta). Ondoren, 17:45ean, sei urtetik gorako umeentzako saioa.

IURRETA ipuin kontaketa
Helduentzako ipuin kontaketa saioa: ‘Sola Solae’ (Mon Mas), 19:00etan, Herri Bibliotekan.

Otsailaren 27ean

BERRIZ antzerkia
‘Celestina’ (La escalera de tijera konpainia), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO lan saioa
Plateruenari buruzko lan saio parte hartzailea, 10:30ean, Zabalarra ikastetxean. Bertan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da, www.labur.eus/tagerozer gunean.

ELORRIO musika
Kontzertua: Olatz Salvador, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
‘Ikimilikiliklik’ (Marie de Jongh konpainia), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 28ra bitartean

DURANGALDEA deialdia
Errefuxiatutako sahararrei laguntzeko Karabana Solidarioa. Aurten, izurria dela-eta elikagaiak batu barik, dirua batuko dute. Bide bi daude ekarpen ekonomikoa egiteko. Bizum aplikaziora sartu eta sakatu “eman” botoia. Segidan bilatu Río de Oro elkarte (01955 kodea) eta eman dirua dohaintzan. Bestalde, Río de Oro elkartearen kontu korrontean sartu daiteke dirua. (ES90 3035 0129 11 1290034483).

Martxoaren 14ra bitartean

DURANGO erakusketa
‘Alegiazko paisaiak eta ironiaren irudiak’ (Ramon Zuriarrainen margolanak), Arte eta Historia Musean.



Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Hasta el cielo**
barikua 19: 19:00
domeka 21: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **14 días, 12 noches**
barikua 19: 19:30
zapatua 20: 19:30
domeka 21: 19:30
astelehena 22: 17:30/19:30
martitzena 23: 19:00
eguzatena 24: 18:30

• **Nuevo orden**
barikua 19: 19:30
zapatua 20: 17:30/19:30
domeka 21: 17:30/19:30
astelehena 22: 17:30/19:30
martitzena 23: 19:00
eguzatena 24: 18:30
• **Entre nosotras**
barikua 19: 19:30
zapatua 20: 17:30/19:30
domeka 21: 17:30/19:30
astelehena 22: 17:30/19:30
martitzena 23: 19:00
eguzatena 24: 18:30
• **Barry, el rey de la disco**
zapatua 20: 17:30
domeka 21: 17:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Hope**
domeka 21: 19:00
astelehena 22: 19:00

:: Zornotza ARETOA

• **Vacaciones contigo... y tu mujer**
barikua 19: 19:00
zapatua 20: 19:00
domeka 21: 19:00
astelehena 22: 19:00
• **Yugo eta Lala**
domeka 21: 12:00

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 19 · 09:00-09:00	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
ZAPATUA, 20 · 09:00-09:00	
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
09:00-13:30	
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	
09:00-14:00	
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
DOMEKA, 21 · 09:00-09:00	
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
ASTELEHENA 22 · 09:00-09:00	
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
MARTITZENA, 23 · 09:00-09:00	
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	
EGUAZTENA, 24 09:00-09:00	
ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	
EGUENA, 25 · 09:00-09:00	
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Julenek, etxeko neskatxa dantzari eta ederrak, 10 urte egingo ditu otsailaren 24an. Zorionak senide guztion partez.



Zorionak, **Iraia**, etxeko danon partez! Musu handi bat, neska handi!



Zorionak, **Iara**! Hamaika urte egin dituzu. Musu handi bat aitaren, amaren eta Jurgiren partez. Askok maite zaitugu!



Jasonek, gure neskatxa jator eta ederrak, 14 urte egingo ditu urtarilaren 22an. Zorionak etxeko guztion partez!

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡️ 20° / 11° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 11° / 6° 🌧️	EGUAZTENA 🌡️ 14° / 9° ☀️
DOMEKA 🌡️ 14° / 7° 🌧️	MARTITZENA 🌡️ 18° / 10° ☀️	EGUENA 🌡️ 14° / 7° 🌧️

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak



Betikoak
flexografía

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



GAUZAK DIRENA BALIRA
Joseba Sarrionandia (Pamiela)



DENDAOSTEKOAK
Uxue Alberdi (Susa)



SASIOLA
Mila Salterain (Alberdania)



POESIA, ZAURIEN UKENDU
Ainhoa Urien (Pamiela)



MIÑAN
Ametz Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

“Inguruko abeltzainekin lan egin dut eta jendeak estimatzen du hori”

Rafa Bizkarrak Mañarian dagoen denda bakarra eraman du azken urteetan. Zapatuan erretiroa hartuko du, 50 urteren ondoren. Basoan paseatzeko denbora hartuko du.



Rafa Bizkarra Goiti
Harakina
Mañaria | 1966

MAÑARIA • AITZIBER BASAURI

Rafa Harategia —Bizkarra Harategia izenagaz ezagunagoa— denda bat baino gehiago izan da Mañarian. Harategia ez ezik beste produktu batzuk erosteko aukera eman duen denda izan da, eta horren kudeaketa lehiaketara ateratu du udalak. Rafa Bizkarrak 50 urtean hartu du negozio horren ardura, eta lekukoa emateko ordua heldu zaio.

Erretiroa hartuko duzu bihar. Zein sentsazio sortzen dizkizu horrek?

Pena ematen dit, egia esan, baina deskantsatzeko gogo ere badut. Orain 54 urte, aitak harategi txiki bat ipini zuen Mañarian, eta beragaz lanean zebilen mutila joan egin zenean Berrizen beste harategi bat

zabaltzeko, neu hasi nintzen aitagaz. 14 urte nituen. Ordutik hementxe egon naiz, egunero. Birritan hartu ditut oporrak: ezkondu nintzenean hamabost egun, eta urrezko ezteiak egitean beste zortzi. Abuztuan ere zabalik eduki dugu, goizetan.

50 urte urte asko dira. Ateratu begirata, zelakoa da oroitzapena?

Bezeroak oso ondo portatu dira beti. Oraingo lokal hau hartzean, hasiera gogorra izan zen. Baina Lourdes emazteak eta biok astiro-astiro aurrera ateratu dugu denda. Batzuek pena hartu dute itxi egingo dudalako. Okelaren kalitateagaitik herritik kanpora ere bezero asko izan dituzue.

Mañaria, Izurtza, Elorrio, Abadiño, Otxandio... hemen inguruko abeltzainekin lan egin dugu beti, eta

jendeak estimatzen du hori. Bezeroek ea okela nongoa den galdetzen dute beti. Hori jakinda, ez dute besterik behar. Horrek asko lagundu digu. Durangoko eta Elorrioko bezero asko ditut; urteetan Elorrioko elkarte guztietara eroan dut okela.

Herrian dagoen denda bakarra izan da zuena. Denerik topatu daiteke bertan. Sasoi batean, denda txiki gehiago zeuden, baina zarratzen joan dira. Bakarrik geratu ginen. Orduan,

“Denda hau kenduta, Mañaria lako herri bat ezer barik geratzen da. Gazteak mugituko dira, baina jende

beste zerbaite eskaini behar genuela pentsatu genuen, hasieran harategia baino ez geneukan. Fruta, esnea, garbitzeko produktuak... ipini genituen salgai. Jendeak produktu gehiago izan zitzaizkion eskura.

Mañariko Udalak lehiaketara ateratu du dendaren kudeaketa.

Oso ondo ikusten dut. Asko poztu nintzen jakin nuenean. Badakigu dendak aurrera jarraituko duena. Denda hau kenduta, Mañaria lako herri txiki bat ezer barik geratzen da. Gazteak mugituko dira beste herri batzuetara kotxean, baina jende nagusia nora joango da?

Loteria ere saltzen duzue...

Urte piloan dugu zenbaki bera. Sasoi batean, tabernan zegoen zenbakia. Hura ixtean, ea zergaitik ez genuen hartzen esan zigun jendeak. Baina saririk tokatu ez!

Baduzu gomendiorik emateko denda hartuko duenari?

Inguruko abeltzainen okela eskaintzen jarraitzea gomendatuko nioke. Baserritarrek pozik hartuko dute. Horrek asko lagunduko dio. Hala ere, berak ikusi beharko du zelan doakion hobeto. Fruta ere egunero ekarri izan dut Durangotik. Lanera ez naiz etorriko, amaitu dut neurea, baina laguntzeko prest izango nau.

Zelan jakin dezakegu okela ona den?

Abelburuak ondo jaten badu, okela ona izango da, ez dago beste sekreturik. Nik lan eginiko baserritarrekin oso pozik nago. Pentsa, orain 50 urteko bezeroak ditut. Oso bezero onak izan ditut. Txuleta, azpizuna... oso ondo saldu dut dena, baina, gehien, etxean egindako odolosteak, txorizoa eta tripakiak.

Zer egingo duzu bihartik aurrera?

Lehenengo eta behin, deskantsatu. Ortu zati bat ere badut eta, gogo badut, ipiniko dut zeoz; hori bai, arduririk barik. Basoan paseatzeko ere aprobetxatuko dut.

Baduzu bidaia bai zain...

Erretiroa hartzean Argentinara joango nintzela esaten nuen lehen (barrez). Orain ez dut hainbeste gogorik, baina batek daki, joango naiz igual. Berrizen bizi diren bezero argentinarrak ere badituzte.

Mañariarrei ezer esatekorik?

Dendara joaten jarraitu dezatela, proba egin dezatela. Hainbeste urte zabalik egonda, pena litzateke ixtea.

Lauhortza

Amaia Ugalde
Begoña
Kazetaria



IKASTEN

Margotzen ikasteko tailer batera apuntatu naiz. Beti erakarri izan nauen kontu bat da: Elorrioren, kale margo lehiaketa egoten denean, esaterako, ederra izaten da margolarien herriko hainbat txokotan topo egitea, euren alboan jarri eta apurka-apurka paisaia zelan osatzen duten ikustea. Eta probatu nahi nuen.

Hasi naiz margolan bat landu guran, eta uste baino pazientzia eta denbora gehiago beharko dudala konturatu naiz. Hala ere, maisuak lasaigarria den kontu bat errepikatzen digu maiz: trankil ibiltzeko probak egiten; gero beti izango dugulako aukera gaitetik beste modu batera edo beste kolore batzuekin margotzeko. Gaur ez bada, datorren astean asmatuko dugula, edo hurrengoan.

Ikasketa prozesu gehienetan horrela izaten dela esango nuke, probak eginda ikasten dugu. Biolina ikasten hasi denak oso soinu desatseginak jotzen ditu hasieran; bertsotan hasten dabilenak kantuan hasi orduko denbora asko behar izaten du pentsatzeko, eta bertso txar asko kantatu beharko ditu bere ibilbidean; kotxeko karneta ez dugu denok lehen azterketan ateratu.

Ederra litzateke gure buru barruan bizi den epaile txikia oportetara sarriago bidaliko bagenu; askeago sentituko bagina gauza berriak egiten hastean; oraindik deskubritu ez dugun gure gaitasunetan gehiago sinistu eta beldur gutxiago bagenu erronka berriei ekitean.

Albiste gris eta etsigarrien garaioan horixe opa gura dizuet: gauza berriak deskubritu ditazue; harritu ezazue zeuen burua, ikasi besteengandik, zuen errit-mora, duzuen adina duzuela. Bidean frustratu egingo gara agian, baina gure esku egon daiteke beste margo batzuk nahastu eta bizitzari kolore hobe bat ematea.

DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,
ZERIKUSIA DUEN **NEGOZIORIK BADUZU,**
JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian